

Bideo-grabazioak katalogatzeko prozedura- eskuliburua

2016ko urria

Donostia kalea 1 – 01010 VITORIA-GASTEIZ

Tel. 945 01 94 70

Posta elektronikoa: liburutegi-zerbitzua@euskadi.eus



AURKIBIDEA

AURKIBIDEA	2
ESKULIBURUAREN HELBURUA	5
APLIKAZIO IRIZPIDEAK	5
INFORMAZIO-ITURRIAK	5
KATALOGAZIO-HIZKUNTZA	5
KATALOGAZIO-MODULUA	6
IKUS-ENTZUNEZKO MATERIAL GEHIGARRIA	6
BIDEO-GRABAZIOAK KATALOGATZEA	7
GOIBURUA (EE)	7
T001 KONTROL ZENBAKIA (EE)	9
T003 KONTROL ZENBAKIAREN IDENTIFIKADOREA (EE)	9
T007 DESKRIBAPEN FISIKOAREN EREMU FINKOA (E)	10
T008 LUZERA FINKOKO INFORMAZIO-KODEAK – OROKORRA + MATERIAL BISUALA (EE)	16
T017 LEGE GORDAILUAREN ZENBAKIA (E)	23
T020 LIBURUEN NAZIOARTEKO ZENBAKI NORMALIZATUA (ISBN) (E)	24
T024 BESTE IDENTIFIKATZAILE NORMALIZATU BATZUK (E)	25
T028 ARGITARATZAILEAREN ZENBAKIA (E)	26
T035 SISTEMAREN KONTROL-ZENBAKIA (E)	28
T040 – ZENTRO KATALOGATZAILEA (EE)	29
T041 HIZKUNTZA-KODEA (EE)	30
T080 SHU (E) ZENBAKIA	33
T655 EREMUAN ERABILITAKO ZINEMA-GENEROEI DAGOKIEN SHU	38
IKUS-ENTZUNEZKOAK	38
T084 BESTE SAILKAPEN ZENBAKI BAT (E)	39
SARRERA AUKERATZEA	40
T100 SARRERA NAGUSIA – PERTSONA IZENA (EE)	41
T110 SARRERA NAGUSIA – ERAKUNDE KORPORATIBOAREN IZENA (EE)	41
T111 SARRERA NAGUSIA – BILTZARRAREN IZENA (EE)	41
T130 SARRERA NAGUSIA – IZENBURU HAUTATUA (EE)	42
T245 IZENBURUAREN AIPUA (EE)	43
T246 IZENBURUAREN ALDAERAK (E)	46
T250 EDIZIOAREN AIPUA (E)	48
T260 ARGITALPENA, BANAKETA ETA ABAR (E)	49
T300 DESKRIBAPEN FISIKOA (E)	51
T4XX SERIEAREN EREMUA	55
T490 SERIEAREN AIPUA (E)	55
T500 OHAR OROKORRA (E)	56
T505 FORMATUDUN EDUKIARI BURUZKO OHARRA (E)	57
T508 SORTZE- EDO EKOIZPEN-KREDITUEI BURUZKO OHARRA (E)	60
T511 PARTE-HARTZAILEEI ETA ANTZEZLEEI BURUZKO OHARRA (E)	61
T518 GERTAKARI BATEN DATARI/ORDUARI ETA LEKUARI BURUZKO OHARRA (E)	63
T521 PUBLIKO HARTZAILEARI BURUZKO OHARRA (E)	64
T538 SISTEMAREN EZAUGARRIEI BURUZKO OHARRA (E)	67
T540 ERABILERA- ETA ERREPRODUKZIO-BALDINTZEI BURUZKO OHARRA (E)	69
T546 HIZKUNTZARI BURUZKO OHARRA (E)	70
T586 SARIEI BURUZKO OHARRA (E)	72
T594 IZENBURUARI ETA ERANTZUKIZUNAREN AIPUARI BURUZKO OHARRA (E)	73

T596 ARGITALPENAREN EREMUARI BURUZKO OHARRA (E)	74
T597 DESKRIBAPEN FISIKOAREN EREMUARI BURUZKO OHARRA (E)	75
T6XX GAI-SARREREN EREMUAK – INFORMAZIO OROKORRA.....	76
T655 INDEXATZEKO TERMINOA – GENEROA / FORMA (E)	78
T7XX SARRERA GEHIGARRIAK – INFORMAZIO OROKORRA	79
T700 SARRERA GEHIGARRIA – PERTSONA IZENA (E)	80
T710 SARRERA GEHIGARRIA – ERAKUNDEAREN IZENA (E).....	81
T711 SARRERA GEHIGARRIA - BILTZAR-IZENA (E).....	82
T740 SARRERA GEHIGARRIA – IZENBURU ERLAZIONATU EDO ANALITIKO KONTROLATUGABEA (E).....	83
T773 ITURRI-DOKUMENTUAREN ERREGISTROA (E).....	84
T777 “HONEKIN BATERA ARGITARATUA” ERREGISTROA (E).....	86
T800 SERIEAREN SARRERA GEHIGARRIA - PERTSONA-IZENA (E).....	89
T830 SERIEAREN SARRERA GEHIGARRIA - IZENBURU HAUTATUA (E)	90
T9XX TOKIAN TOKIKO EREMUAK.....	91
NULL.....	92
1. ERANSKINA DVDETAKO HIZKUNTZEN ZERRENDA	93
2. ERANSKINA BIDEO-GRABAZIOEN GENEROEN ZERRENDA	95
ZINEMA-GENEROAK	95
Cine bélico / Gerra-zinema	95
Cine biográfico / Zinema biografikoa	95
Cine cómico / Zinema komikoa	95
Cine de acción / Ekintzazko zinema.....	96
Cine de animación / Animaziozko zinema.....	96
Cine de aventuras / Abenturazko zinema	96
Cine de suspense / Suspensezko zinema	96
Cine de terror / Beldurrezko zinema.....	97
Cine documental / Zinema dokumentala	97
Cine erótico / Zinema erotikoa	97
Cine fantástico y de ciencia ficción / Fantasia eta zientzia fikziozko zinema	97
Cine histórico / Zinema historikoa	97
Cine infantil / Haurrentzako zinema	98
Cine mudo / Zinema mutua.....	98
Cine musical / Zinema musikala	98
Cine negro / Zinema beltza	98
Cine religioso / Zinema erlijioso	99
Cine romántico / Zinema erromantikoa	99
Cine social y político / Zinema sozial eta politikoa	99
Comedia / Komedia	99
Cortometrajes / Film laburrak	100
Drama / Drama	100
Western / Western zinema	100
GENEROEN ZERRENDA, JATORRIAREN ARABERA.....	100
IKUS-ENTZUNEZKOAK	102
Audiovisuales deportivos / Kiroletako ikus-entzunezkoak	102
Audiovisuales de humor / Umorezko ikus-entzunezkoak	102
Audiovisuales didácticos / Ikus-entzunezko didaktikoak	102
Audiovisuales didácticos infantiles/ Haurrentzako ikus-entzunezko didaktikoak	102
Audiovisuales divulgativos / Dibulgazio ikus-entzunezkoak	102

Conciertos y vídeos musicales / Kontzertuak eta musika-bideoak _____	103
Espectáculos / Ikuskizunak _____	103
Espectáculos infantiles / Haurrentzako ikuskizunak _____	103
Representaciones teatrales / Antzerki-emanaldiak _____	103
Representaciones teatrales infantiles / Haurrentzako antzerki-emanaldiak _____	103
3. ERANSKINA KASU BEREZIAK _____	104
FILM-SORTAK.....	104
HAINBAT FILM DVD BAKARREAN.....	106
TELESAILAK.....	107
4. ERANSKINA GLOSARIOA _____	109
LOTURA BIDEZ BISTARATZEKOAK _____	112
BIBLIOGRAFIA _____	114

ESKULIBURUAREN HELBURUA

Eskuliburu honen helburua da Euskadiko Irakurketa Publikoko Sareari (EIPS) atxikitako liburutegietako katalogatzaileei bideo-grabazio mota guztiak katalogatzeko hainbat jarraibide normalizatu eskaintzea, horien formatu (VHS, DVD edo beste) eta edukiak (musika-bideoa, bideo-sorkuntza, dokumentala, fikzioa, etab.) edozein direla ere.

APLIKAZIO IRIZPIDEAK

Informazio-iturriak

Katalogazio-arauetan honako informazio-iturri hauek ezartzen dira, lehentasun-hurrenkera honetan:


- Dokumentua bera, hau da:
 - a) Lanaren goiburua osatzen duten fotogramak eta amaierako sekuentzietan agertzen diren testuak (kredituak).
 - b) Bilgarriari erantsitako etiketa, azken hori dokumentuaren parte baldin bada betiere.
- Informazio-iturri nagusirik ez badago, honako iturri hauek erabiliko dira hurrenkera honetan:
 - a) Dokumentuarekin batera datorren testu-materiala (karatula, publizitatea, etab.).
 - b) Bilgarria, dokumentuaren parte ez den kasuetan.
 - c) Beste iturri batzuk.

Katalogazio-hizkuntza

Gaztelaniaz, gaztelaniara bikoiztuta edo euskara ez den beste hizkuntza batean dauden bideo-grabazioak gaztelaniaz katalogatuko dira.

Euskarazko ikus-entzunezko materialak edota euskarara bikoiztutakoak euskaraz katalogatuko dira.

Katalogazio-modulua



Ikus-entzunezko material gehigarria

Aldizkako argitalpenen hainbat alerekin batera datozen ikus-entzunezko gehigarriak bereiz katalogatuko dira, eta argitalpenaren erregistro nagusiari lotuta joango dira esteka baten bitartez.

Adibidea:
<p><i>MARC bistaratzea:</i> T245 00 \$aCisne negro [\$hVídeo] /\$cdirected by Darren Aronofsky ; screenplay by Mark Heyman and John McLaughlin and Andrés Heinz T773 0# \$tSpeak Up\$x 0214-1418 \$g318</p>
<p><i>ISBD bistaratzea:</i> Cisne negro [Vídeo] / directed by Darren Aronofsky; screenplay by Mark Heyman and John McLaughlin and Andrés Heinz. -- Barcelona : RBA revistas, [2011] 1 videodisco (DVD) (ca. 108 min.) : son., col. + 1 libro (64 p.; fot. bl. y n.) En: <u>Speak Up</u> = ISSN . 0214-1418 . -- 318</p>

Bideo-grabazioak katalogatzea

GOIBURUA (EE)

Bibliografia-erregistroaren lehenengo eremua dugu. Eremu finkoa da; erregistro bakoitzaren lehen 24 (00-23) posizioak hartzen ditu eta erregistroa prozesatzeko informazio eskaintzen du.

- Erregistro berrientzako «lehenetsita» (**ngm###c#**) eremuak baliatuko dira.

Jarraian, posizio nagusiak zehazten dira.

Posizioak

05 Erregistroaren egoera.

Karaktere bakarreko kode alfabetikoa da, eta erregistroaren eta fitxategiaren arteko lotura adierazten du, horren mantentze-lanetarako.

b *Berria*

06 Erregistro mota

Karaktere bakarreko kode alfabetikoa da, eta erregistroaren osagaien ezaugarriak definitzen ditu. Bideo-grabazioen kasuan honakoa izango da:

g *Proiektatzeko material grafikoa*

07 Maila bibliografikoa

Karaktere bakarreko kode alfabetikoa da, eta erregistroaren maila bibliografikoa adierazten du.

m *Monografia* Dokumentua zati oso bat da bere baitan (monografia), edota bereizitako zati-kopuru mugatutan osatzea proposatzen da (liburuki anitzeko monografia).

08 Kontrol-mota

*Ez du mota zehazten.* Deskribatutako dokumentuari ez zaio motarik aplikatzen.

09 Karaktereen kodifikazioaren eskema

Erregistro batean erabilitako karaktereen kodifikazioaren sistema zein den zehazten du.

*MARC-8.* Marc21ean deskribatutako 8 biteko jokoak.

17 Kodifikazio-maila

Kode honen bitartez informazio bibliografikoaren eta/edo MARC erregistroaren edukien deskribapen-maila adierazten dira.

Maila osoa. Deskribapen osoa, ale fisikoaren zuzeneneko azterketaren ondoriozkoa.

18 Katalogazio deskriptiboaren forma

Kode alfanumeriko bat da, eta Katalogazio Arauei erreferentzia eginez adierazten ditu erregistroaren datu deskriptiboaren ezaugarriak. Kasu horietan, «**ISBD puntuaziorikgabe**» hautatuko dugu, hori baita aukera lehenetsia.

c **Puntuazio gabeko ISBD.** Erregistroaren zati deskriptiboak ISBDren puntuazioari buruzko arauak jasotzen ditu, baina ISBD puntuazioa ez da azpieroemu baten amaieran agertzen. Gure kasuan, kode hauxe erabiliko dugu **beti**.

19 Zati anitzeko baliabide baten erregistro-maila

Zehaztugabea edo aplikaezina.

Goiburua	Goiburua
Erregistro-egoera	<input type="text" value="n"/>
Material-mota	<input type="text" value="g"/>
Maila bibliografikoa	<input type="text" value="m"/>
Kontrol-mapa	<input type="text"/>
Karaktere-jokoa	<input type="text"/>
Kodifikazio-maila	<input type="text"/>
Katalogazio-mota deskriptiboa	<input type="text" value="c"/>
Erlazionaturiko erregistro-kodea	<input type="text"/>

T001 KONTROL ZENBAKIA (EE)

Sistemak automatikoki sortzen duen kontrol-zenbakia jasotzen du. TITN zenbakiarekin bat dator. Update formatuan ikus daiteke, baina ezin da editatu.

```
..T001:  
00769190
```

T003 KONTROL ZENBAKIAREN IDENTIFIKADOREA (EE)

Zentro katalogatzaileari dagokion MARC kodea. Sistemak modu automatikoan sortzen du eremu hau. Update formatuan ikus daiteke, baina ezin da editatu.

Gure kasuan, dagokigun MARC kodea honako hau da:

ES-VgaRLPE


```
..T003:  
ES-VgaRLPE
```

T007 DESKRIBAPEN FISIKOAREN EREMU FINKOA (E)

Dokumentu baten ezaugarri fisikoei buruzko informazio berezia da, modu kodetuan emandakoa. Informazioa dokumentu oso bati buruzkoa izan daiteke edo horren zati bati buruzkoa; esaterako, atxikitako materialari buruzkoa.

Eremu horrek ez du, ez adierazlerik, ez azpiero-ko-derik. Elementuen posizioak berak definitzen ditu elementuok.

T007 eremuak zuhaitz-egitura arrunta du. T007 espezifikoak «bideo-grabazioentzako» hautatuko dugu.



Programak automatikoki eta modu lehenetsian esleitzen dituen aukerak DVD formatuari soilik aplikatu dakizkioke. Beste euskarri batzuk (VHS, U-Matic, etab.) katalogatzen ari bagara, beste aukera batzuk erabili beharko ditugu.

Kode guztiak minuskulaz idatziko dira.

POSIZIOAK

00 Material-mota

v **Bideo-grabazioa.** Letra bakarraz osatutako kode alfabetikoa da, eta dokumentu hori bideo-grabazio materiala dela adierazten du. Bideo-grabazioa irudiak dituen grabazio gisa definitzen da; irudi mugimendudunak dira normalean, bai eta soinudunak ere. Telebista aparatu batean edo bideo monitore batean erreproduzitzeko eginda dago. Posizio honetan ez da karaktere betegarririk (|) onartzen. (Lehenetsita)

01 Materialaren izendapen espezifikoa

Dokumentu bat bideo-grabazio mota espezifiko bati dagokio.

c	Film-kartutxoa. Kartutxo baten barruan dagoen zintan egindako bideo-grabazioa da, eta bi muturrak batuta ditu, zinta etengabea lortzeko.
d	Bideo-diskoa. Plastikoz edo beste material batez egindako disko zapala da. Bideo seinaleak erregistratzen dira bertan, soinuarekin nahiz soinurik gabe. Zenbait bideo-disko sistema garatu dira: adibidez, laser optikoa, CED, magnetikoa, etab. (Lehenetsita)
f	Bideokasetea. Bobina bikoitzeko kasete baten barruan, zintan gordetako bideo-grabazioa da.

03 Kolorea

Bideo-grabazio baten kolorearen ezaugarriak.

b	Zuri-beltzean. Bideo-grabazioa zuri-beltzean egin da.
c	Polikromoa. Bideo-grabazioa kolore anitzetan egin da. (Lehenetsita)
m	Bitarikoa. Obra edo bilduman irudi zuri-beltzak, koloretakoak edota beste mota batekoak bateratzen dira.

04 Bideo-grabazioaren formatua

Bideo-zinta edo diskoentzako grabazio-formatua da. Bideo-grabazio baten erregistro bibliografikoak formatu ezberdinak deskribatzen baditu (adibidez, Beta eta VHS), bakoitzari 007 eremu bat esleituko zaio.

a	Beta - bideokasetea, ½ hazbetekoa (12,5 mm). 1975ean Sony etxeak plazaratu zuen etxeko bideo sistema sailkatzeko erabiltzen da. Sistema horrek hazbete erdiko bideo zintetan etxeko grabazioak egin eta horiek erreproduzitzeko aukera eskaintzen zuen. Kasetearen tamainagatik bereizten da, bai eta zintaren U-load karga sistemagatik eta horren kapazitate teknikoengatik ere. Formatu hori <i>Betamax</i> izenez ere ezagutzen da.
b	VHS - bideokasetea, ½ hazbetekoa (12,5 mm). Japan Victor Corporation (JVC) enpresak plazaratutako sistema sailkatzeko erabiltzen da. Sistema horrek hazbete erdiko bideo zintetan etxeko grabazioak egin eta horiek erreproduzitzeko aukera eskaintzen zuen. Kasetearen tamainagatik bereizten da, bai eta zintaren M-load karga sistemagatik eta horren kapazitate teknikoengatik ere. VHS siglek «Video Home System» esan nahi dute. (VHS)

c	<p>U-matic - bideokasetea, $\frac{3}{4}$ hazbetekoa (18,7 mm). Sonyk erregistratutako izena baliatzen duen bideo-formatua sailkatzeko erabiltzen da. Izen horrek zintaren U formako kakoari egiten dio erreferentzia. Hazbete $\frac{3}{4}$ neurriko zinten estandar unibertsala da, eta asko erabiltzen da telebistako produkzio eta emisioetan. <i>U mota normalizatua</i> ere esaten zaio.</p>
g	<p>Laserdisc. Laser optiko (islatzaile) bidezko bideo-grabazio sistema da. PWM (Pulse Width Modulation) deritzon teknologia analogikoa darabil, eta bideo bidezko informazioa plastikozko disko borobil, zapal eta zimurrik gabeko batean biltzen du. Disko hori potentzia eskaseko laser izpi baten bidez irakurtzen da, diskoan ageri diren datuak marka ñimiñoen moduan edo luzera aldakorreko depresio moduan erregistratua. Laserdisc delakoa hiru tamaina estandarretan saltzen da: 12 hazbetekoa (30 cm), 8 hazbetekoa (18 cm) eta 4 $\frac{3}{4}$ hazbetekoa (12 cm). 12 hazbeteko tamaina (30 cm) da ohikoena, eta filmentzako erabili ohi da. Disko edo bilgarriak LD marka erregistratua darama normalean (Laser Disc edo Laser Vision esaldia marka erregistratuaren azpian ageri ohi da); halere, beste aukera bat da LASER VIDEODISC, DiscoVision, LaserDisc, LaserVision edo antzeko esaldi bat agertzea LD marka erregistratuaren orde. 8 hazbeteko (18 cm) eta 4 $\frac{3}{4}$ hazbeteko (12 cm) diskoak ez dira oso ohikoak eta musika-bideoak edo iraupen motzeko beste programa batzuetarako erabili ohi dira. Diskoak edo dagokion bilgarriak termino hauetakoren bat darama inprimatuta normalean: CDV (CD VIDEO), VSD (VIDEO SINGLE DISC), edo LD (LASER DISC). Disko optiko bidezko sistema hau 1978an jarri zen salgai, baina haren produkzioa azkar jaitsi zen 1998tik aurrera, DVDaren arrakastaren eraginez.</p>
i	<p>Betacam - bideokasetea, $\frac{1}{2}$ hazbetekoa (12,5 mm). Betacam bideo-grabazio formatua bideo formatu analogiko eta profesionala da (kasete batean sartuta dagoen oxidozko zintaren osagaiengatik), eta hazbete erdiko neurria du.</p>
s	<p>Blu-ray diskoa. Definizio altuko bideotarako diseinatutako disko optikoaren formatua. Datuak gordetzeko ere balio du, eta Sony/Philips enpresek garatu zuten elkarlanean. Blu-ray diskoak laser luzera motzagoko uhin urdin-more bat darabil, eta horrela datu gehiago gorde ditzake espazio gutxiago erabilita. Bideoa ikusteko irakurgailu berezi bat behar da.</p>

v	DVD. Laser optiko (islatzaile) bidezko bideo-grabazio sistema da. PCM (Pulse Code Modulation) deritzon teknologia digitala darabil, bideo bidezko informazioa plastikozko disko borobil, zapal eta zimurrik gabeko batean biltzeko. Disko hori potentzia eskaseko laser izpi baten bidez irakurtzen da, diskoan ageri diren datuak marka ñimiñoen moduan edo luzera aldakorreko depresio moduan erregistratua. Normalean, DVDe 4 ¾ hazbeteko (12 cm) diametroa dute (nahiz eta kasu batzuetan 3 hazbeteko disko txikiagoak saltzen diren) eta disko edo bilgarrian DVD, DVD VIDEO edo VIDEO CD bereizgarria daramate (kasu honetan, disko trinkoaren bereizgarri berbera du, baina «Digital video» darama azpian idatzita). 1996tik dago sistema hau salgai. (Lehenetsita)
----------	---

05 Soinuarekin edo soinua bereizita

Informazio horrek adierazten digu ea dokumentuak berak soinua dakarren edo soinua hori material gehigarri batean dagoen.

#	Soinurik gabe (mutua). Ez dago soinurik (hau da, dokumentu mutua da).
a	Soinuduna. Dokumentuak soinua dauka, irudiekin lagunduta edo ez. (Lehenetsita)

06 Erdi soinuduna

Dokumentuaren soinua daukan euskarri espezifikoa da (soinua hori bideo-grabazioan bertan egon edo ez), eta dokumentuak eskatzen duen soinua erreproduzio mota ere barne hartzen du. Posizio hau 007/05 (Soinuduna edo soinua bereizita) eta 007/07 (Dimentsioak) eremuetan kodifikatutako informazioarekin batera erabiltzen da. Normalean, soinuarentzako euskarriak honakoak dira: 1) banda magnetikoa kasete edo kartutxoan sartuta; 2) kasete edo kartutxo batean sartuta edo bobina batean egon daitekeen soinua- edo bideo-zinta eta 3) soinua- edo bideo-diskoa.

#	Soinurik gabe (mutua). Ez dago soinurik (hau da, dokumentu mutua da).
i	Bideo-diskoa. Bideo-grabazio bat laguntzen duen soinua bideo-diskoaren parte da. Normalean, ez da bideo-diskorik erabiltzen soilik soinua grabatzeko. Bi multzo egitea komeni da: alde batetik, bideoaren datuak gordetzen dituzten bideo-diskoak: 12 hazbeteko (30 cm) laser optikozko bideo-diskoak; eta besterik, soilik soinua grabatzeko erabiltzen diren disko trinkoak: adibidez, soinu-zko disko trinkoak, 4 ¾ hazbetekoak (12 cm). Irudi edo soinua diskora digitaletan grabatzeko teknologia berbera erabiltzen da. (Lehenetsita)

07 Dimentsioak

Bideo-grabazioaren zabalera.


o	<i>½ hazbete (12,5 mm). (VHS)</i>
z	Beste bat. Definitutako beste kodeak ez dira aplikagarriak. Bideo-diskoen dimentsioak adierazteko erabiltzen da; izan ere, oraindik ez dago estandarizatutako baliodun koderik bideo-diskoentzat. (Lehenetsita)

08 Soinuaren erreprodukzio-kanalak konfiguratzea

Bideo-grabazioaren soinudun alderdia erreproduzitzeko kanalak konfiguratzea. Behar den erreprodukzio mota zehatza kodetzeko, horri dagozkion oharrak jarraitu behar dira. Kode horiek ez diote jatorrian grabatutako soinu-kanalen konfigurazioari erreferentziarik egiten, erreprodukzio unean kanal horiek guztiak eskuragarri egon ezean.

	Ez da erabiltzen. (Lehenetsita)
--	--

VHS formatuko bideo-grabazioei dagokienez, T007 eremua gorritz markatutako posizioetan baino ez da esku hartuko.

T007	Deskribapen fisikoaren eremu finkoa Bidegrabazioa		
Materialaren kategoria	<input type="text" value="v"/>	Materialaren berriazko izendapena	<input type="text" value="d"/>
Kolorea	<input type="text" value="c"/>	Bidegrabazioaren formatua	<input type="text" value="b"/>
Soinu erantsia edo banandua	<input type="text" value="a"/>	Soinu-euskarria	<input type="text" value=""/>
Neurriak	<input type="text" value="o"/>	Soinu-erreproduzioaren kanalaren egitura	<input type="text" value=""/>

T008 LUZERA FINKOKO INFORMAZIO-KODEAK – OROKORRA + MATERIAL BISUALA (EE)

40 posizioak (00-39) erregistro osoari buruzko informazio kodetua eta katalogatu beharreko dokumentuaren bibliografia-ezaugarri bereziak jasotzen dituzte. Kodetutako datu horiek erabilgarri suerta daitezke informazioa errekuperatu eta kudeatzeko.

Eremu horrek ez du, ez adierazlerik, ez azpiero-ko-derik. Elementuen posizioak berak definitzen ditu elementuok. Kode alfabetikoak minuskulaz idatziko dira.

OSO GARRANTZITSUA DA EREMU HAU ONDO BETETZEA, KODETUTAKO DATUAK OSO ERABILGARRI SUERTA DAITEZKEELAKO ERREGISTROAK ERREKUPERATZEKO ETA ADMINISTRAZIO HELBURUETARAKO.

POSIZIOAK

00-05 - Fitxategian sartzeko data

Sistemak sortzen dituen **sei zenbakizko karaktereak** dira, eta erregistroa noiz sortu zen zehazten dute, *uuhee* ereduarekin (adib.: 160510 - 2016ko maiatzaren 10a).

Erregistro bat gehitzen den edota datu-base batetik erregistro bat lortzen den bakoitzean, sistemak alta ematen den data esleituko du automatikoki.

Aldaketen data eta ordua T005 eremuan (azken transakzioaren data eta ordua) erregistratuta geratuko da automatikoki. Eremua ezin da editatu, Update formatuan baino ez da bistaritzen.

06 - Data mota/ argitalpenaren egoera

(Ik. Inprimaki modernoak)

Letra bakarreko kode alfabetikoa da, eta adierazten du zein motatakoa den **T008/07-10eko** data (lehenengo data) eta **T008/11-14koa** (bigarren data).

Kode erabilienak **s** (bakarra) eta **m** (hainbat) dira.

Erregistro gehien kasuan, informazioa T260 eremutik hartzen da (argitalpena, banaketa, etab.)

m	Hainbat data. Zenbait liburukiz osatutako idazlan bat zer urte-tartetan argitaratu den.
q	Zalantzazko data. Ez da ezagutzen dokumentuaren data zehatza.
r	Jatorrizkoaren berrimprimatze-/berrargitalpen-data. Erreproduzio- edo berrargitalpen-data jasotzen du.

s	Data bakarra. Banaketa-, argitalpen-, igorpen- edo gauzatze-data bakarra jasotzen du, zehatza zein probablea. Kasu horretan ez da "Bigarren data" beteko.
----------	--

07-10 – Lehen data

(Ik. Inprimaki modernoak)

Lau zifraz adierazten da; bakarren bat ezezaguna bada haren ordeztu **u** jar daiteke. Lau hutsuneak bete behar dira beti.

Lehenengo data argitalpen-data da, edo zenbait liburukiko argitalpenen kasuan, argitalpenaren hasiera. Data hori T260 eremuaren \$c azpierenarekin lotuta dago; bi datak ez badatoz bat, programak gorri markatuko ditu.

Argitalpen-urte zehatza ezagutzen ez bada, gertuen dagoen hamarkada edo mendea adieraziko da, eta karaktere ezezagun bakoitza **u** letrarekin ordeztuko da.

06 posizioan (data mota) **r** jarri bada, hemen jatorrizko edizioaren data jarriko dugu.

1-9	Dataren digituak
u	Data osoa edo zati bat ezezaguna da

Hori da programak kontuan hartzen duen data, ARDAren arabera bilaketa egiteko.

11-14 – Bigarren data

(Ik. Inprimaki modernoak)

15-17 – Lana argitaratu, ekoitzi edo burutu den lekua

Bi edo hiru karaktereko kode alfabetikoa da, eta idazlana non argitaratu, ekoitzi edo burutu den adierazten du. Kodearen iturria Marc Code List for Countries da.

AbsysNet-ek «**sp**» du lehenetsita, Espainiari dagokiona. Aldatzeko, F5 funtzio-tekla edo laguntza-ikonoa sakatuz, herrialde bakoitzari dagozkion kodeak lor daitezke.

Bi karaktereko kodeak ezkerrean justifikatzen dira, eta erabili gabeko posizioa zuriune batez betetzen da (#).

Informazio hori da programak kontuan hartzen duen data, HERRIALDEen arabera bilaketa egiteko.

Masako produkzioan plazaratutako bideo-grabazioen kasuan, T260 eremuko argitaratze-lekuari dagokion kodea erabiliko da.

18-20 - Film eta bideo-grabazioen iraupena

Hiru karaktereko zenbakia da, eta film baten edo bideo-grabazio baten iraupen denbora adierazten du (minututan). Zenbaki hori eskuinean justifikatzen da, eta erabili gabeko posizioak zeroz osatzen dira.

000	<i>Iraupen-denbora hiru karaktere baino handiagoa da</i>
001-999	<i>Iraupen-denbora.</i> Iraupen-denbora adierazten du 1 eta 999 arteko zenbaki osoekin. Hiru digitu baino gutxiagoko iraupen-denborak (minututan) eskuinean justifikatzen dira, eta erabili gabe geratu diren posizioak zeroekin osatuko dira.
nnn	<i>Ez aplikagarria.</i> Iraupen-denbora ez da aplikagarrian, esaterako, dokumentua film bat edo bideo-grabazio bat ez denean.
---	<i>Ezezaguna.</i> Iraupen denbora ezezaguna da. (Lehenetsita)

Adibideak:	
Film eta bideo-grabazioen iraupen-denbora: 000	T300 ## \$a30 bideokasete (VHS) (52 min. bakoitzak) : \$bson., col
Film eta bideo-grabazioen iraupen-denbora: 052	T300 ## \$a1 bideokasete (VHS) (52 min.) : \$bson., col.
<i>Iraupen-denbora ez da erregistroan ageri:</i>	
Film eta bideo-grabazioen iraupen-denbora: - - -	T300 ## \$a1 videocasete (VHS) : \$bson., col.

21. Zehaztugabea

22 – Publiko hartzailea

Letra bakarrak osatutako kode alfabetikoa da, eta dokumentua zein publiko motari zuzentzen zaion adierazten du. Ikus-entzunezko hezkuntza-materialarentzat erabiltzen da batez ere. Esan daitekeenean dokumentu baten edukia hainbat hartzaile motari zuzenduta dagoela, hartzaile nagusiari dagokion kodea erabiliko da.

#	<i>Ezezaguna edo zehaztugabea.</i> Materialaren hartzailea ezezaguna da edo ez da zehaztu. Material grafiko original eta historikoa sailkatzeko erabiltzen da.
a	<i>Eskolaurrea.</i> 0 eta 5 urte bitarteko haurrentzat, gutxi gorabehera.
b	<i>Lehen hezkuntza.</i> 6 eta 8 urte bitarteko haurrentzat, gutxi gorabehera.
c	<i>Nerabezaroaurrea.</i> 9 eta 13 urte bitarteko gaztetxoentzat, gutxi gorabehera.
d	<i>Nerabea.</i> 14 eta 17 urte bitarteko gazteentzat, gutxi gorabehera.

e	Helduak. Helduei zuzendutako materiala.
f	Espezializatua. Dokumentua publiko zehatz bati zuzenduta dago, eta bere izaerak interes gutxiko argitalpen bihurtzen du beste publiko batzuentzat. Hona hemen dokumentu mota honen adibide batzuk: 1) izaera teknikoa duten formakuntza filmak; 2) urritasun fisiko edo psikikoak dituztenen hezkuntza helburu duten dokumentuak; eta 3) entzule multzo murriz bati zuzendutako dokumentuak, hala nola, erakunde bateko langileei.
g	Orokorra. Interes orokorreko dokumentua da eta ez dago publiko mota zehatz bati zuzenduta. Kode hori gainerako kodeek modu egokiagoan deskribatzen ez duten fikzio-lan gehienentzako erabiltzen da.
j	Gazteak. 0-15 urte arteko haur eta gazteei zuzenduta. Gazteen audientzia mota zehatzu nahi ez denean erabiltzen da kode hori.
l	Ez da erabiltzen.

23-27 – Zehaztugabeak

28 – Argitalpen ofiziala

Letra bakarreko kode alfabetikoa da, eta dokumentua korporazio ofizial batek argitaratu duen ala harentzat propio argitaratu den adierazten du.

«o» kodea erabiliko dugu, gehiago zehaztu gabe.

Erakundeak ez du zertan izan sarrera nagusi edo bigarren mailako sarrera, baina argitaratzaile gisa agertu beharko du edota dokumentuaren argitalpenaren erantzule izan.

#	Ez da argitalpen ofiziala (Lehenetsita)
o	Argitalpen ofiziala – zehaztugabeko maila. Organismo ofizial batek edo batentzat argitaratutako edo produzitutako dokumentua da, baina haren maila jurisdikzionala ezin da zehaztu.

29 – Argitalpenaren forma

Letra bakarraz osatutako kode alfabetikoa da, eta dokumentuaren forma zehazten du. Guk erabiliko ez dugunez, posizio horretan karaktere betegarri bat izango dugu (|).

30-32 – Zehaztugabeak

33 - Material bisual mota

m	Filmak. Pelikula baten gaineko irudi finkoen segida, soinuarekin nahiz gabe. Bata bestearen atzetik azkar proiektatzeko diseinatuta daude, horrela mugimenduaren efektu optikoa sortzeko.
v	Bideo-grabazioa. Irudiak erregistratuta dituen grabazioa; irudi horiek mugimenduan daude normalean, eta soinuz lagunduta datoz. Telebista aparatu batean edo bideo-monitore batean erreproduzitzeko pentsatuta daude. (Lehenetsita)

34 - Teknika

Letra bakarraz osatutako kode alfabetikoa da, eta film eta bideo-grabazioetan mugimendua sortzeko erabilitako teknika adierazten du.

a	Animazioa. Animazioko filmak teknika aukera zabala erabilia egiten dira. Hala nola: 1) marrazki bizidunak; 2) film grafikoa (pelikularen gainazalean zuzenean aplikatutako pintura edo bestelakoekin); 3) irudi, buztin edo txotxongiloekin egindako animazioa (horietan, hiru dimentsioko objektuei fotogramaz fotograma argazkia ateratzen zaie animazio efektua lortzeko); eta 4) beste teknikak.
c	Animazioa eta benetako ekintza. Animazioaren eta benetako ekintzen arteko konbinazioa da. Katalogazio-erregistroaren edozein aldetan agertzen bada dokumentu horretan sekuentzia animatuak daudela, izendapen hori erabiltzen da. Informazio hori Aurkibideko oharretan (520 eremua) edo Sorkuntza- edo ekoizpen-kredituen oharretan (508 eremua) agertu liteke.
l	Benetako ekintza. Katalogoaren erregistroan eta material gehigarrian bestelako informaziorik azaldu ezean, suposatzen da filma edo bideo-grabazioa benetako ekintzez osatuta dagoela. (Lehenetsita)
u	Ezezaguna. Mugimendua sortzeko erabilitako teknika ezezaguna da.
z	Bestelakoa. Funtsean, animazioari edo benetako ekintzei ez dagozkien teknika bereziak. Teknika horien artean daude mikrozinematografia, denbora bitarteko zinematografia, trukaketa zinematografikoa eta beste hainbat teknika. Z kodea diapositibetatik edo filminetatik abiatuta egindako film edo bideo-grabazioak sailkatzeko ere erabiltzen da. Kasu horietan, irudi finkoak baliatzen dira eta ez zaie mugimendurik gehitzen.

35-37 – Hizkuntza


Hiru karaktereko kode alfabetikoa da, eta dokumentuaren hizkuntza adierazten du. Kodearen iturria MARC Code List Languages. Kodea aukeratzeko orduan, dokumentuan nagusi den hizkuntza hartzen da kontuan.

Posizio horietatik hartzen da online katalogoan "HIZK" bilaketa egiteko informazioa.

Hizkuntza batean baino gehiagotan dauden idazlanak:

- Hizkuntza bi edo gehiagoko lanetan (gehienez ere sei) hizkuntza nagusiaren kodea jarriko da, eta nagusitzen denik ez badago, lehenengoarena.
- **«mul» kodea soilik sei hizkuntzatik gorako lanetarako erabiliko da.**

Gainera, hizkuntza horiek **T041** etiketarekin (*Hizkuntza Kodea*) eta **T546** hizkuntza-oharrarekin gordeko dira.

F5 funtzio teklaren edo laguntza ikonoaren bidez,  hizkuntzen kodeak kontsultatu eta atzeman ditzakegu. Sistemak lehenetsita dakar gaztelaniari dagokion “**spa**” kodea.

Material bisualen kasuan (material grafiko proiektagarri original eta historikoa alde batera utzita), honako hauek definitzen dute eduki-hizkuntza: soinu-banda, hori laguntzen duen soinua, azpтитulu edo titulu bereziak (film mutuetan), zeinu hizkuntza (hura denean komunikabide bakarra), edo idatziz ageri den hizkuntza (soinurik gabeko filmentzat, edo, soinurik badute, narraziorik gabekoentzat).

Eskuliburu honen 1. eranskinean hizkuntza- eta kode-zerrenda bat dago ikusgai.

30 – Aldatutako erregistroa

Karaktere bakarreko kodea da, eta bibliografia-erregistro batean jasotako zeinahi daturen ondorioz katalogatuta dagoen dokumentuko informazioan aldaketarik eragin den adierazten du. Hutsik utziko da (#).

39 – Katalogazio-iturria

Letra bakarreko kodea da, eta erregistroaren jatorrizko katalogazioaren iturria adierazten du. Gure kasuan, katalogazio partekatuko sistema batekin lan egiten dugunez, **c kodea** esleituko dugu BETI.

Katalogazio-iturria **T040** eremuaren **\$a** azpierzemuan ere zehaztuko da, eta horretarako, Liburutegi Zerbitzuak ezarritako kodeak erabiliko dira. Ikusi **T040** eremua).

c **Katalogazio kooperatiboko programa.** Erregistroaren sortzailea katalogazio kooperatiboko programa bateko kidea da. (Lehenetsita)

Adibidea:

Katalogazio-iturria: **c**

T040 ## \$aO1000 (Lege Gordailuak katalogatutako erregistroa)

T008	Informazio-kodeak - Bistaratutako materialak		
Sarrera-eguna	<input type="text" value="161004"/>	Data-mota/argitalpenaren egoera	<input type="text" value="s"/>
Lehenengo data	<input type="text"/>	Bigarren data	<input type="text"/>
Argitalpenaren herrialdea	<input type="text" value="sp"/>	Pelikula eta bideograbazioetako iraupena	<input type="text" value="---"/>
Jasotzailearen maila	<input type="text" value="g"/>	Argitalpen ofiziala	<input type="text"/>
Dokumentuaren forma	<input type="text" value="l"/>	Bistaratutako material-mota	<input type="text" value="v"/>
Teknika	<input type="text" value="l"/>	Hizkuntza	<input type="text" value="spa"/>
Erregistro aldatua	<input type="text"/>	Katalogazioaren iturriak	<input type="text" value="c"/>

T017 LEGE GORDAILUAREN ZENBAKIA (E)

Agentzia bakoitzak esleitzen duen lege gordailuaren zenbakia da, eta derrigorrez beteko da lege gordailuaren eta euskal bibliografiaren kasuan.

Adierazleak

Lehena # *Zehaztugabea*

Bigarren a # *Copyright zenbakia edo lege gordailuaren zenbakia*
8 *Ez du lotura bidez bistaratzekorik sortzen*

Azpieremuko kodeak

\$a *Copyright edo lege-gordailuaren zenbakia (E)*

\$z *Copyright edo lege gordailuaren zenbakia ezeztatua/baliogabea (E)*

Funtsezko elementua da eta behar hainbat aldiz bete behar da.

Lotura bidez bistaratzekoa

Etiketa horrek aurrez definituta dauka lotura bidezko bistaratzea; hau da, ez da beharrezkoa hitzez hitzekoa idaztea, programak automatikoki sortuko duelako dagokion katalogazio hizkuntzan, betiere **T040** eremuko **\$b** behar bezala betetzen bada.

Gaztelania

Euskara

D.L.

L.G.

(Ik. Inprimaki modernoak)

\$a – Copyright edo lege-gordailuaren zenbakia

Lege Gordailuaren Zenbakia.

\$a – Copyright edo lege-gordailuaren zenbakia ezeztatua/baliogabea

Adibideak:

T017 ## \$aB 1757-2013 (1ª temporada)

T017 ## \$aB 23996-2014 (2ª temporada)

T017 ## \$aB 23993-2014 (caja)

T020 LIBURUEN NAZIOARTEKO ZENBAKI NORMALIZATUA (ISBN) (E)

Batzuetan, bideo-grabazioek ISBN izaten dute. Halaber, *Abenduaren 12ko 2063/2008 Errege Dekretua, ekainaren 22ko Irakurketa, Liburu eta Liburutegien 10/2007 Legea garatzen duena, ISBN-ari dagokionean* dekretuan ageri dena hitzez hitz biltzen da I. Eranskineko a letran. Honela dio: «ISBN kodea erabili behar duten argitalpen monografikoak: **Filmak, bideoak eta hezkuntzako gardenkiak edo gardenki didaktikoak, hezkuntza formalaren barruan irakasten diren ikasgaietan erabiltzen diren baliabide didaktikoak badira, betiere.**»

Liburuen Nazioarteko Zenbaki Normalizatua(ISBN). Dokumentuan ISBN zenbakia agertzen ez bada edo zenbaketa okerra bada, katalogatzailea zenbaki zuzena aurkitzen saiatuko da.

Adierazleak

Lehena # Zehaztugabea

Bigarrena # Zehaztugabea

Azpieremu-kodeak

§a *Liburuen Nazioarteko Zenbaki Normalizatua (EE)*

§z *ISBN ezeztatua edo baliogabea (E)*

Lotura bidez bistaratzekoa

Etiketa horrek aurrez definituta dauka lotura bidezko bistaratzea; hau da, ez da beharrezkoa hitzez hitzekoa idaztea, programak automatikoki sortuko duelako dagokion katalogazio hizkuntzan, betiere **T040** eremuko **§b** behar bezala betetzen bada.

<i>Gaztelania</i>	<i>Euskara</i>
ISBN	ISBN

(Ik. Inprimaki modernoak)

§a – Liburuen Nazioarteko Zenbaki Normalizatua

ISBN balioduna jasotzen du, bai eta edozein informazio gehigarri ere, parentesi artean.

§z – ISBN ezeztatua edo baliogabea

ISBN ezeztatua edo baliogabea, eta edozein motatako informazio gehigarria parentesi artean adieraziko da.

T024 BESTE IDENTIFIKATZAILE NORMALIZATU BATZUK (E)

Beste eremu batean idatzi ezin daitekeen zenbaki normalizatua edota dokumentuan argitaratutako kodea. Zenbaki normalizatu edo kode mota lehen adierazlearen bitartez edo \$2 azpieremuan identifika daiteke.

AOIZ (*Argitalpen Ofizialen Identifikazio Zenbakia*) sartzeko erabiliko dugu.

Adierazleak

Lehena	7 \$2 azpieremuan zehaztutako iturria
	8 Zehaztugabea
Bigarrena	# Ez dago informaziorik

Azpieremu-kodeak

\$a	Zenbaki normalizatua edo kodea (EE)
\$z	Zenbaki normalizatua edo kode ezeztatua/baliogabea (EE)
\$2	Zenbaki edo kodearen iturria (EE)

\$a – Zenbaki normalizatua edo kodea

\$2 - Zenbaki edo kodearen iturria

Lehenengo adierazlearen balioa 7 denean baino ez da erabiltzen (\$2 azpieremuan zehaztutako iturria). Kodea «*Standard Identifier Source Codes*» delakotik hartzen da.

Adibidea:
<i>MARC bistaratzea:</i> T024 7# \$a306-93-002-7 \$2 NIPO
<i>ISBD bistaratzea:</i> Argitalpen ofizialen identifikazio zenbakia (NIPO): 306-93-002-7

Lotura bidez bistartzekoa

Etiketa horrek aurrez definituta dauka lotura bidezko bistaratzea, **T040** eremuko **\$b** behar bezala betetzen bada, betiere. Lehenengo adierazlearen balioak eta **\$2** azpieremuko edukiak definitzen dute bistaratzea.

Gaztelania

Euskara

NIPO:

NIPO:

T028 ARGITARATZAILEAREN ZENBAKIA (E)

Argitaratzaileak formateatutako zenbakiak dira, eta honakoetan erabiltzen dira: soinudun grabazioak, bideo-grabazioak, musika inprimatua eta musikarekin zerikusia duten beste material batzuk. Erregistro bibliografikoan dauden eta argitaratzaileak formateatu ez dituen zenbakiak T500 eremuan (Ohar orokorra) erregistratuko dira.

Zenbakia dokumentuan bertan ageri den bezala transkribatuko da, tarteak, marrak, parentesiak eta abar bere horretan jasoz.

Adierazleak

Lehena	0 Argitalpen-zenbakia
	1 Matrize-zenbakia
	2 Xafla-zenbakia
	3 Beste musika zenbaki bat
	4 Bideo-grabazioaren zenbakia
	5 Argitaratzailearen beste zenbaki bat
Bigarrena	0 Ez dago oharrik, ez sarrera gehigarrik
	1 Oharra, sarrera gehigarri bat dago
	2 Oharra, ez dago sarrera gehigarrik
	3 Ez dago oharrik, sarrera gehigarri bat dago

Azpieremuko kodeak

- \$a Argitaratzailearen zenbakia (EE)**
- \$b Iturria (EE)**

Lehen adierazlea:

0 Argitalpen-zenbakia. Argitalpenaren izendapena edo argitalpen seriatuaren identifikazioa ezagutzeko erabiltzen da zenbaki hori. Argitaratzaile batek esleitzen dio soinudun grabazio jakin bati, soinudun grabazio baten alde bati edo soinudun grabazio bateko interpretazioari, edo osotasun bat balira bezala editatutako soinudun grabazio multzo bati. Argitalpen-zenbakia soinudun grabazioko zigilu diskografikoan ageri da, edo, hainbat grabaziok osatutako multzoen kasuan, bilgarrian.

1 Matrize-zenbakia. Soinudun grabazio bat burutzeko, abiapuntutzat hartutako masterra. Dokumentuak argitalpen-zenbakirik edo zigilu diskografikorik ez duenean identifikazio-zenbaki gisa erabiltzen da.

2 Xafila zenbakia. Argitaratzaileak musika-argitalpen zehatz bati esleitutako zenbakia da.

§a – Argitaratzailearen zenbakia

§b – Iturria

Argitaratzaile-zenbakiaren iturria. Argitalpen motaren eta esleitutako argitaratzaile-zenbakiaren arabera, iturria aldatu egiten da. Bideo-grabazioen kasuan, zigilu diskografikoaren izena §b azpieremuan kodetzen da.

Adibidea:
T028 02 §aMV600167 §bMGM/UA

T035 SISTEMAREN KONTROL-ZENBAKIA (E)

Jatorrizko sistemaren kontrol-zenbakia jasotzen du, katalogoen fusioaren ostean migratutako erregistroetarako.

WorldCat katalogoa erabiltzeko behar den OCLC zenbakia ere badauka.

Update formatuan ikus daiteke, baina ezin da editatu.

Adibidea:

T035 ## \$a(OCoLC)864103543

```
..T035:  
  < ><a>(OCoLC)434808289  
..T035:  
  < ><a>B0600-439002
```

T040 – ZENTRO KATALOGATZAILEA (EE)

Jatorrizko bibliografia-erregistroa sortu, MARC eduki-adierazleak esleitu eta erregistroa transkribatu edo aldatu zuen erakundearen izena edo MARC kodea.

Geure kasuan, Liburutegi Zerbitzuak zentro bakoitzarentzat ezarritako kodeak erabiliko dira.

(Ik. Inprimaki modernoak)

Adierazleak

Lehena **# Zehaztugabea**

Bigarrena **# Zehaztugabea**

Azpieremu-kodeak


\$a ***Jatorrizko katalogazio-zentroa (EE)***

\$b ***Katalogazio-hizkuntza (EE)***

\$c ***Zentro transkribatzailea (EE)***

\$d ***Zentro aldatzailea (E)***

\$a, \$b eta \$c azpieremuak bete behar dira; bestela, programak gorritz markatuko ditu.

Azpieremu bakoitzak aurrez zehaztutako katalogazio-taula bat du, «katalogatzeko laguntza» botoia sakatuz gero, erabili ditzakegun aukerak bakarrik ikusiko ditugu. 

T041 HIZKUNTZA-KODEA (EE)

Dokumentuarekin lotutako MARC hizkuntza-kodeak dira, eta erregistroaren **008/35-37** eremuko hizkuntza kodea nahikoa ez denean informazio guztia jakinarazteko balio dute.

Kode horien iturria hau da: *ISO 639-1 – Codes for the representation of names of languages.*

Adierazleak

	# Ez dago informaziorik
	0 Dokumentua ez da itzulpena eta ez du itzulpenik jasotzen. Atxikitako materiala ez da kontuan hartuko dokumentua itzulpena den ala ez erabakitzeko.
Lehena	1 Dokumentua itzulpena da edo itzulpen bat jasotzen du. Lana jatorrizko hizkuntzan argitaratuta dagoen kontuan hartu gabe erabiliko da. Edonola ere, itzulitako idazlanak ez badu jatorrizkoaren sarrera bera –adibidez, itzulpenaz gain egokitzapena ere badelako–, dokumentua ez da itzulpentzat hartuko eta lehenengo adierazlea 0 izango da.
Bigarrena	# Hizkuntzaren MARC kodea

Azpieremu-kodeak

- \$a Testuaren hizkuntza-kodea/soinu-banda edo titulu independentea (E)**
- \$b Laburpenaren edo aurkibidearen hizkuntza-kodea (E)**
- \$h Jatorrizko hizkuntza-kodea (E)**
- \$j Azpтитulu en edo legenden hizkuntza-kodea (E)**

Ikus-entzunezko materialen kasuan, T041 eremua erabiliko da film eta bideo-grabazioetarako, honako baldintza hauetako bat edo bat baino gehiago betetzen bada:

- soinu-bandak bertsioak ditu hainbat hizkuntzatan
- irudiak laguntzen dituen soinuak (diskoak, zintak, etab.) bertsioak ditu hainbat hizkuntzatan
- azpтитuluak edo titulu independenteak (film mutuen kasuan), hainbat hizkuntzatan daude
- obra bat laguntzen duen soinua hizkuntza jakin batean dago, eta testu berbera obran inprimatuta dator azpтитulu gisa, baina beste hizkuntza batean
- soinurik gabeko lanei edo narraziorik gabeko soinudun filmei atxikita datorren gidoi inprimatua hizkuntza ezberdinetan dago

- komunikazioa zeinu hizkuntzaren bidez egiten da.

Film edo bideo-grabazioetako hizkuntza original edo idatzien inguruko informazio gehigarria erregistratzeko ere erabili daiteke 041 eremua, hau da, hizkuntzarekin zerikusia duen informazio gehigarria erregistratzeko.

Hizkuntza-kode guztiak karaktere alfabetikoz jarriko dira, minuskulaz.

ETIKETA HORI BETETZEN DEN GUZTIETAN, OHAR BATEAN (T546, T594...) ADIERAZI BEHARKO DA.

Ša - Testuko hizkuntzaren kodea/soinu-banda edo titulu independenteak

Ša azpierzemuko lehenengo hizkuntza-kodea **T008/35-37** eremuan ere kodetu behar da, non eta **T008/35-37** eremuak zuriunerik (###) ez duen.

Mugimenduan dauden irudien bitartekoei dagokienez, Ša azpierzemuak dokumentuan ageri diren hizkuntza (mintzatu zein kantatuaren) kodea edo kodeak barne hartzen ditu; halaber, zeinu hizkuntzaren edo soinu gehigarriko hizkuntzen beste edozein kode ere azpierzemu honi dagokio.

Šb - Laburpenaren edo aurkibidearen hizkuntza-kodea

Aurkibideen hizkuntza-kodeak jasotzen ditu, betiere, testuan erabilitako bera ez bada. Hurrenkera alfabetikoan kodifikatuko dira.

Šh- Jatorrizko hizkuntza-kodea

Idazlanaren jatorrizko hizkuntzaren eta/edo tarteko itzulpenen hizkuntza-kodeak. Tarteko itzulpenen kodeak jatorrizkoaren kodeen aurretik kodetzen dira.

Šj Azpiztitulu edo legenden hizkuntzaren kodea (E)

Hizkuntza idatziei dagozkien kodeak dira, eta mugimenduan dauden irudietarako sarbide dira; hala nola, intertituluak (zinema mutua), azpiztituluak edo legendak (ireki zein itxiak, entzumen-urritasuna duten erabiltzaileentzat diseinatuta daude).

Adibideak:

T008/35-37 eng

T041 0# Šaeng Šbfre Šbger Šbspa

(Testua ingelesez dago, eta laburpenak ditu frantsesez, alemanez eta gaztelaniaz)

T008/35-37 baq

T041 1# Šabaq Šaspa

(Testua euskaraz eta gaztelaniaz dago)

T041 1# \$aeng \$hfre


(Testua ingelesez dago, eta frantsesezko itzulpena da)

T041 1# \$aeng \$jger

(Bideoa ingelesez dago, eta alemanezko azpigituluak ditu)

T041 1# \$aeng \$afre \$aspa \$jeng \$jfre \$jspa

(Bideoa gaztelaniaz, frantsesez, ingelesez dago, eta gaztelania, frantses eta ingelesezko azpigituluak ditu)

Azpieremu bakoitzak aurrez zehaztutako katalogazio-taula bat du, «katalogatzeko laguntza» botoia sakatuz gero, erabili ditzakegun aukerak bakarrik ikusiko ditugu. 

T080 SHU (E) ZENBAKIA

Eremu honetan Sailkapen Hamartar Unibertsaleko (SHU) notazio bat jasotzen da. SHU laburtuaren 2. edizioa erabili beharko da, sailkapen-irizpideak homogeneizatzeko.

Lotura duten oharpenen ordena ez da aldatuko.

Adierazleak

Lehena	0 Osoa. Zenbakia edizio oso batetik hartzen da.
	1 Laburtua. Zenbakia edizio laburtu batetik hartzen da. (Lehenetsita)
Bigarrena	# Zehaztugabea

Azpieremu-kodeak

\$a Sailkapen Hamartar Unibertsalaren zenbakia (EE)

Bideo-grabazio orokorrak

Bideo-grabazio eta filmak sailkatzeko, jarraian zehaztutako oharpen-zerrenda itxia baliatuko dugu.

Adibidea:

T080 ## \$a791.224.2
T245 00 \$aEn busca del arca perdida [**\$h**Vídeo]
T655 #1 \$aCine de aventuras
T655 #4 \$aAbenturazko zinema
T655 #1 \$aCine americano
T655 #4 \$aAmerikako zinema

- Izaera dokumentaleko bideo-grabazioen kasuan, izadiari, historiari eta abarrei buruzkoetan (National Geographic, Jacques Cousteau), bai eta zinematografikoagoak direnetan ere (La pelota vasca, la piel contra la piedra), bi notazio erabiliko dira.

- Gaiaren SHU eta, ondoren, osagarria.....(086.8)

- Dokumentuari dagokion SHU.....791.229.2

Bi kasu horietan baliatuko da T655 **Cine documental** edo T655 **Zinema dokumentala**, bai eta filmak jorratzen dituen gaietako dagokien T6XX.

Adibidea:

T080 ## \$a639.111.8(086.8)
T080 ## \$a791.229.2
T245 00 \$aCrecedo entre elefantes [**\$h**Vídeo]

T650 #1 \$aElefantas
T650 #4 \$aElefanteak
T655 #1 \$aCine documental
T655 #4 \$aZinema dokumentala

- Izaera didaktikoa duten bideo-grabazioen kasuan (sukaldaritza, brikolajea, hizkuntzak, etab.) T655 ***Audiovisuales didácticos*** edo T655 ***Ikus-entzunezko didaktikoak*** generoa baliatuko dugu. Halakoetan ere notazioa bikoitza izango da:
 - Gaiaren SHU eta, ondoren, osagarria(086.8)
 - Ikus-entzunezko didaktikoari dagokion SHU.....791.5

Adibidea:

T080 ## \$a379.826(086.8)
T080 ## \$a791.5
T245 00 \$aBricomanía [\$hVídeo]
T650 #1 \$aBricolaje
T650 #4 \$aBrikolajea
T655 #1 \$aAudiovisuales didácticos
T655 #4 \$aIkus-entzunezko didaktikoak

- Bideo-grabazio musikal edota artisten zuzeneko saioak jasotzen dituzten musika-bideoen kasuan, T655 ***Conciertos y vídeos musicales*** edo T655 ***Kontzertuak eta musika-bideoak*** generoa baliatuko dugu, eta musika-estiloa ere zehaztuko dugu. Ikus-entzunezko horietarako notazioa 78(086.8) izango da.

Adibideak:

T080 ## \$a78(086.8)
T084 ## \$aSR63
T110 20 \$aQueen
T245 10 \$aQueen on fire [\$hVídeo] \$b : live at the bowl
T655 #1 \$aConciertos y vídeos musicales
T655 #4 \$aKontzertuak eta musika-bideoak
T655 #1 \$aRock
T655 #4 \$aRocka

T080 ## \$a782.1(086.8)
T245 00 \$aAida [\$hVídeo] / \$cVerdi
T655 #1 \$aConciertos y vídeos musicales
T655 #4 \$aKontzertuak eta musika-bideoak
T655 #1 \$aÓperas
T655 #4 \$aOperak

- Umorezko bideo-grabazioen kasuan (bakarrizketa bildumak, telebistako serieak, umoristen emanaldiak, etab.), T655 **Audiovisuales de humor** edo T655 **Umorezko ikus-entzunezkoak** generoa baliatuko dugu. Bideo-grabazio mota horien notazioa 398.23(086.8) izango da.

Adibidea:
T080 ## \$a398.23(086.8) T245 00 \$aVaya semanita [\$hVídeo] T655 #1 \$aAudiovisuales de humor T655 #4 \$aUmorezko ikus-entzunezkoak

- Hainbat motatako bideo-grabazioen kasuan (zirkuko ikuskizunak, magia, etab.), T655 **Espectáculos** ó T655 **Ikuzkizunak** generoa baliatuko dugu. Notazioa 79(086.8) izango da.

Adibidea:
T080 ## \$a79(086.8) T245 00 \$aSaltimbanco [\$hVídeo] T655 #1 \$aEspectáculos T655 #4 \$aIkuzkizunak

- Antzezlanen grabazioak jasotzen dituzten bideo-grabazioen kasuan, T655 **Representaciones teatrales** edo T655 **Antzerki-emanaldiak** generoa baliatuko dugu. Notazioa 792(086.8) izango da.

Adibidea:
T080 ## \$a792(086.8) T245 03 \$aLa venganza de Don Mendo [\$hVídeo] T655 #1 \$aRepresentaciones teatrales T655 #4 \$aAntzerki-emanaldiak

- Kirol-ekitaldiak baino biltzen ez dituzten bideo-grabazioak T655 **Audiovisuales deportivos** ó T655 **Kiroletako ikus-entzunezkoak** generoaren baitan sailkatuko dira, eta notazioa 796(086.8) izango da.

Adibidea:
T080 ## \$a796(086.8) T245 00 \$aAthletic Club de Bilbao [\$hVídeo] \$b : 100 años en imágenes T655 #1 \$aAudiovisuales deportivos T655 #4 \$aKiroletako ikus-entzunezkoak

Haurrentzako bideo-grabazioak

- Argi eta garbi haurrentzako edukia duten bideo-grabazioen kasuan, bi notazio mota erabiliko ditugu: alde batetik, filmaren genero konkretuari erreferentzia egiten diona, eta bestetik, haurrentzako zinemari dagokion notazioa: 791.42-532. T655 atalean ere bi genero zehaztuko dira: bideo-grabazioari dagokiona eta **Cine infantil** edo **Haurrentzako zinema**.

Adibidea:
T080 ## \$a791.228
T080 ## \$a791.42-532
T245 00 \$a101 dálmatas [\$hVídeo]
T655 #1 \$aCine de animación
T655 #4 \$aAnimaziozko zinema
T655 #1 \$aCine infantil
T655 #4 \$aHaurrentzako zinema
T655 #1 \$aCine americano
T655 #4 \$aAmerikako zinema

- Haurrei zuzenduta dauden bideo-grabazio didaktikoen kasuan, T655 **Audiovisuales didácticos infantiles** ó T655 **Haurrentzako ikus-entzunezko didaktikoak** generoa baliatuko dugu, eta lanaren gai konkretuari erreferentzia egingo diogu honako notazioez lagunduta:
 - Gaiaren SHU eta, ondoren, osagarria..... (086.8)
 - Haurrentzako ikus-entzunezko didaktikoaren SHU.....791.5-532

Adibidea:
T080 ## \$a631.11(086.8)
T080 ## \$a791.5-532
T245 00 \$aBaby MacDonald [\$hVídeo] \$b : un día en la granja
T650 #1 \$aGranjas
T650 #4 \$aAbeletxeak
T655 #1 \$aAudiovisuales didácticos infantiles
T655 #4 \$aHaurrentzako ikus-entzunezko didaktikoak

- Haurrentzako ikuskizunak jasotzen dituzten bideo-grabazioen kasuan T655 **Espectáculos infantiles** edo T655 **Haurrentzako ikuskizunak** generoa baliatuko dugu. Notazioa 79-532(086.8) izango da.

Adibidea:
